

GETXOBIZI, BIZIKLETEN MAILEGU PUBLIKOKO ETA BIZIKLETA PRIBATUEN APARKALEKU SEGURURAKO ZERBITZUAREN ERABILERARAKO BALDINTZA OROKORRAK

1. Zer da GETXOBIZI?.....	1
2. Baldintza orokorrak.....	1
3. GETXOBIZI PUBLIKOA erabiltzeko eremua.....	2
4. Zerbitzuan erabiltzaile gisa izen emateko baldintzak.....	2
5. Zerbitzuan izen emateko prozedura.....	2
6. Zerbitzuaren tasaren ordainketa.....	3
7. Zerbitzua uztea.....	3
8. Sistemaren erabilera.....	3
9. ERABILTZAILEAREN ESKUBIDEAK.....	4
10. ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK.....	5
11. DEBEKUAK.....	6
12. Datuen trataera.....	7
13. ARAU HAUSTEAK ETA HARTU BEHARREKO NEURRIAK.....	7
a) ARAU HAUSTEAK.....	7
b) ZIGORRAK.....	8
14. EZ BETETZEAREN PROZESUA.....	8

1. Zer da GETXOBIZI?

GETXOBIZI zerbitzua zerbitzu publiko gisa sortu da Getxo udalerriaren barruan mugikortasun iraunkorra sustatzeko xedez. Zerbitzuan izena ematen dutenek konpromisoa hartzen dute une oro zerbitzuaren erabilera egokia egiteko eta funtzionamendua eta bere arauak errespetatzeko ondoko arautegia arabera.

Bizikleten MAILEGU PUNTUAK / APARKALEKU SEGURUAK:

- Andra Mari
- Ayuntamiento
- Bidezabal
- Estación de las Arenas
- Polideportivo Gobela
- Molino Aixerrota
- Playa Erega
- Playa Algorta
- Polideportivo Fadura
- Puente Bizkaia
- Puerto Deportivo
- Salsidu
- Parque Gernika

Telefona: 900 840 345

WEB: www.getxobizi.com

Mail: getxobizi@getxobizi.com

Erabiltzailearen arreta zentroak:

Gobelaurre 31, 49840 Getxo

Pol. Ind. Errotatxu 4, 48993 Getxo

Ordutegia:

Gorabeheretarako arreta zerbitzuaren telefona: 07:00-22:00

Erabiltzailearen arreta zentroak: 10:30-14:00/17:00-20:00

2. Baldintza orokor hauen **xedea** da bizikleten mailegu publikoaren zerbitzuaren erabilera arautzea, hemendik aurrera GETXOBIZI PUBLIKOA izenez deituko duguna; eta baita bizikleta pribatuen aparkaleku seguruaren sistema ere, hemendik aurrera GETXOBIZI PRIBATUA izendatua.

GETXOBIZI PUBLIKOA zerbitzuaren jabetzakoak diren eta erabilgarri dauden bizikleta publikoen erabileran datza erabiltzaileen aldetik, erabilera baldintza orokorrekin bat.

GETXOBIZI PRIBATUA hiri altzariak erabiltzean eta bertan bizikleta modu seguruan lotzean datza, zerbitzuan izen emanda dauden erabiltzaileen aldetik, erabilera arau orokorrekin bat.

3. GETXOBIZI PUBLIKOA erabiltzeko eremua.

GETXOBIZI PUBLIKOAREN erabilera eremua Getxoko udalerriko lurraldera mugatzen da erabat.

4. Zerbitzuan erabiltzaile gisa izen emateko baldintzak.

1.- GETXOBIZI PUBLIKOAN eta GETXOBIZI PRIBATUAN erabiltzaile gisa izena eman dezakete adinez nagusiak diren pertsona fisiko guztiek, baldin eta baldintza orokor hauek onartzen dituzten eta alta emateko hitzarmen honetan zehaztutako prozedura jarraitzen duten.

Ordainketa banku helbideratze bidez egingo da.

2.- 18 urte izan gabe 14 urtetik gorakoek izena eman dezakete erabiltzaile gisa GETXOBIZI PUBLIKOAN, baldin eta WEB orrian edo erabiltzailearen arreta bulegoan eskura daitekeen baimena bidaltzen duten behar bezala beteta eta adingabearen guraso batek edo tutoreak sinatuta.

Edozein kasutan, adingabeari baimena ematen dion gurasoak edo tutoreak sinatzen duen baimen horretan zerbitzuaren gastuak kobartzeko bankuko kontu baten bidez egiteko baimena ere sinatuko du.

Adingabeari ez zaio alta emango GETXOBIZIIn adierazitako dokumentazio guztia jaso arte.

3.- Bikoizketak ekiditeko debekatuta dago erabiltzaile batek bigarren aldiz izena ematea aurreko izen ematean baja eman ez badu.

5. Zerbitzuan izen emateko prozedura

GETXOBIZI PUBLIKOA

1.- Internet bidez.

Erabiltzaile izan nahi duenak GETXOBIZIren (www.getxobizi.com) WEB orrian sartu behar du eta dagokion izen emateko prozedura bete. Bertan onartu beharko dira dokumentu honetan ezarritako baldintzak.

WEB orrian baldintza orokorren dokumentua onartzeko atala markatzeak erabiltzaileak erabilera baldintzak onartzea dakar eta baita edukia ezagutzen duela aitortzea ere.

Inskripzioa bete ondoren txartela hurrengo 5 lanegunetan iritsiko da etxera.

2.- Aurrez aurreko izen ematea.

Izen ematea aurrez aurre egin nahi dutenek erabiltzailearen arreta bulegora joan beharko dute, izen emateko orria bete, eta berau eta erabilera arau orokorrak sinatu.

Erabiltzaileak unean bertan jasoko du txartela.

*GARRANTZITSUA: Txartela pertsonala eta besterenezina da, beraz, ezingo zaio hirugarren bati utzi.

GETXOBIZI PRIBATUA

Aurrez aurreko izen ematea.

GETXOBIZI PRIBATUA zerbitzuan izena eman nahi duenak aurrez aurre egin beharko du eta inskribatu nahi duen bizikletarekin. Erabiltzailearen arreta zentzura joan beharko du, eta bertan ondoren zehazten den prozedura jarraituko du:

1. Izena emateko inprimakia bete eta berau eta erabilera arau orokor hauek sinatu.
2. 50 €-ko bermea ordainduko du bizikletaren TAGaren truke (identifikatzailea-antena). Dirua aparkako kontuan sartu beharko du eta ordainagiria inprimatu.
3. Erabiltzaileak unean bertan jasoko du txartela.
4. Erabiltzaileari hitzordua emango zaio berak nahiago duen aparkatzeko puntuetako batean bizikletari TAGa jartzeko, eta bizikleta pribatua horrela identifikatzeko.

*GARRANTZITSUA: Txartela pertsona eta besterenezina da, ezingo zaio hirugarren bati utzi.

*GARRANTZITSUA: TAG hori bizikleta jakin horretarako da, ezingo da inolaz ere trukatu edo aldatu.

6. Zerbitzuaren tasaren ordainketa.

Erabiltzaileak bankuko kontu bat eman beharko du zerbitzuaren gastua helbideratzeko. Urteko ordainketak urtean behin egingo dira, izena eman eta hurrengo hilabetean.

Urteko epealdia amaitzean automatikoki berrituko da abonua beste urtebetez, erabiltzaileak ez badu idatziz jakinarazten zerbitzua utzi nahi duela epea amaitu baino hamabost egun aurretik gutxienez.

7. Zerbitzua uztea.

1.- Erabiltzaileak zerbitzua bere borondatez utz dezake bere datuak emanez eta zerbitzua bertan behera uzteko arrazoia adieraziz, emailez, telefonoz edo aurrez aurre erabiltzailearen harrera zentroan.

2.- GETXOBIZI zerbitzuak baja automatikoa eman diezaioke erabiltzailearen bati eta erabilera baldintza orokor hauetan aurreikusten diren neurriak hartu. Zerbitzuak erabiltzaileari 10 laneguneko epea emango dio egokiak iruditzen zaizkion alegazioak egin ditzan. Epe hori igarotzean, eta aurkeztutako alegazioak kontuan hartuz, zerbitzuak erabakiko du baja automatikoarekin aurrera egiten duen ala ez.

3.- Hamabost eguneko epean GETXOBIZI baja automatikoa emango dio erabiltzaileari urteko abonua epea amaitzera doala eta aurreikusitako epean eta eran zerbitzua utzi nahi duela adierazi ez badu ere, abonua ordainketari dagokion bankuko agiria bueltan badator.

8. Sistemaren erabilera.

GETXOBIZI PUBLIKOA

1.- Erabiltzaileak sistemako bizikleta guztiak erabili ahal izango ditu. Zirkulazioan jarritako **bizikleta elektririkak** 55 urtetik gorako erabiltzaileek soilik erabil ditzakete, edo osasun arazoak dituztela arrazoitu dutenek. Bizikleta elektrikoak Getxoko udalerrian soilik erabil daitezke.

*Printzipioz ez da beharrezkoa izango adierazitako osasun arazoak egiaztatzea. Halere, jasotzen diren eskaeren kopuruaren arabera, ez da baztertzeko medikuaren agiria aurkeztu behar izatea.

2.- Bizikleta bat hartzeko prozedura.

- a. Bizikleta mailegatzeko edozein puntutara gerturatu.
- b. Led urdina edo morea (bizikleta elektrikoak) duen ate batera hurbildu. Argi horrek adieraziko digu bizikleta publiko bat dagoela aparkatuta.
- c. Txartela irakurgailutik pasatu.
- d. Atea ireki eta partzela horren barruan dagoen bizikleta kontuz hartu.
- e. Atea itxi eta ondo itxi dugula ziurtatu.
- f. Bizikletan igo eta nahi duzun lekura joan, beti ere Getxoko udalerraren mugen barruan. Gogoratu ezin duzula erabili bizikleta ordubete baino gehiago jarraian.
- g. Bizikleta itzultzeko mailegu puntu batera joan behar duzu, led berdea duen ate batera hurbildu, irakurgailutik txartela pasatu, atea ireki eta bizikleta sartu saskia zuri begira dagoela. Egiaztatu atea ondo itxita geratzen dela.

*Erabiltzailearen ardura da bizikleta behar den bezala itzultzea zerbitzura, gorago deskribaturiko prozedura jarraituta.

*Erabiltzaileak bizikleta hartzean elementuren bat falta dela konturatzen bada, estaziora itzuli beharko du, gorabeheretarako 900.840.345 doaneko telefonora deitu eta beste bat hartu.

3.- Ordutegiak eta zerbitzuaren kuotak.

GETXOBIZI PUBLIKOA:

ORDUTEGIA – 7:00-22:00 (21:30 bizikleta publikoa hartzeko azken ordua)
KUOTA – 10€ urtean

Udalaren, mantentze lanen edo beste arrazoi batzuk direla medio, zerbitzuak aldi batez mugatu ditzake GETXOBIZIko estazioetako ordutegiak edo erabilgarritasuna.

Erabiltzaileak baimena ematen dio Emaus Bilbao SCISi, GETXOBIZIren izenean, zerbitzua erabiltzeagatik sor daitezkeen kuotak kobratzeko banku helbideratze bidez.

GETXOBIZI PRIBATUA

1.- Erabiltzaileak aukera izango du bizikleta pribatua aparkatzeko Getxo udalerriko aparkaleku seguru guztietan.

2.- Bizikleta pribatu bat aparkatzeko prozedura.

a. Bizikleta aparkatzeko edozein puntutara gerturatu.

b. Aparkatzeko leku bat libre dagoela adierazten duen led berdea duen ate batera joan.

c. Txartela irakurgailutik pasatu.

d. Atea ireki eta partzela horren barruan kontu handiz aparkatu bizikleta (eskulekua zuri begira). Aparkatzeko gehieneko denbora tartea ordubete jarraian izango da.

e. Atea itxi eta ondo itxi dugula ziurtatu. Led argia gorritz geratuko da ate horretan bizikleta pribatu bat aparkatuta dagoela adierazteko.

f. Bizikleta jasotzeko aparkatu duzun puntura itzuli beharko duzu, utzi duzun atera joan, txartela irakurgailutik pasatu eta bizikleta atera. Egiatzatu atea ondo itxita geratzen dela.

* Bizikleta hartzean erabiltzailea elementuren bat falta dela konturatzen bada, estaziora itzuli beharko da, gorabeheretarako 900.840.345 doaneko telefonora deitu eta beste bat hartu.

3.- Ordutegiak eta zerbitzuaren kuotak.

GETXOBIZI PRIBATUA:

ORDUTEGIA - 7:00-22:00
KUOTA – 20€ urtean

Udalaren, mantentze lanen edo beste arrazoi batzuk direla medio, zerbitzuak aldi batez mugatu ditzake GETXOBIZIko estazioetako ordutegiak edo erabilgarritasuna.

Erabiltzaileak baimena ematen dio Emaus Bilbao SCISi, GETXOBIZIren izenean, zerbitzua erabiltzeagatik sor daitezkeen kuotak kobratzeko banku helbideratze bidez.

9. ERABILTZAILEAREN ESKUBIDEAK.

Ondoren zehazten diren eskubideak aitortzen zaizkio espresuki erabiltzaileari, izan ditzakeen bestelako enkalterik gabe, indarrean dagoen araudiarekin bat.

1. Aurrez deskribatu den prozedurari jarraiki zerbitzuan izena eman duen erabiltzaileak eskubidea izango du sistemak eskuragarri dituen bizikleta publikoak erabiltzeko, eta baita bizikleta pribatuaren aparkaleku sistema ere, azaldutako baldintzetan eta indarrean dagoen araudian adierazitakoaren arabera.

2. GETXOBIZI PUBLIKOAREN erabiltzaileak eskubidea du sistemako bizikleta publikoak erabilpen egoera onean egoteko.

GETXOBIZI PRIBATUAREN erabiltzaileak eskubidea du *aparka* aparkaleku seguruaren sistema erabilpen egoera onean egoteko.

3. Zerbitzuari eta haren eguneraketei buruzko informazioa eskatzeko eta jasotzeko eskubidea.

4. Iradokizunak, erreklamazioak edo kexak egiteko eskubidea emailez, posta arruntaz edo aurrez aurre Erabiltzailearen erreta zentroan. Erabiltzaileak erantzuna jasoko du 30 eguneko epean, gehienez ere.

5. Zerbitzuaren gorabeherari buruzko informazioa WEB bidez jasotzeko eskubidea.

6. Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, hala dagokionean, erabiltzaileak izan duen istripua bizikletaren funtzionamendu txarrarengatik gertatu dela egiaztatzen duenean, eta erabiltzailearen aldetik errurik edo arduragabekeriarik ez bada egon.

7. GETXOBIZI zerbitzuak akatsen batengatik kobratu behar ez zuen kuotaren bat kobratu badu, erabiltzaileak eskubidea izango du diru hori 30 eguneko epean itzulia izateko.

10. ERABILTZAILAREN BETEBEHARRAK.

Indarrean dagoen arautegian aurreikusten direnez gain, ondoren zehazten diren hauek izango dira erabiltzailearen betebeharrak bereziak:

- 1- Zerbitzua, bizikleta publikoa eta *aparka* hiri altzaria erabiltzea ahal den ardurarik handienarekin.
- 2- Bizikleta behar bezala itzultzea sistemara, haren elementuren batek behar bezala funtzionatzen ez badu.
- 3- *Aparkaren* atea behar bezala itxi dela egiaztatzea, bai bizikleta hartzean, bai itzultzean.
- 4- Txartela hirugarren bati ez uztea, pertsonala eta besterenezina baita.
- 5- Bizikleta publikoa erabiltzea erabiltzailea garraiatzeko soilik.
- 6- Bizikleta publikoa erabiltzea Getxoko udalerraren mugen barruan.
- 7- Bizikleta publikoaren zaintza bere gain hartzea mailegu puntutik hartzen den unetik behar bezala itzultzen den arte.
- 8- GETXOBIZIri jakinaraztea txartela galdu, lapurtu edo hondatu bada.
- 9- GETXOBIZIri jakinaraztea mailegu eta aparkaleku puntuekin eta bizikleta publikoekin zerikusia duen edozein gorabehera.
- 10- Bizikleta publikoa hondatzen bada, erabiltzaileak gertuen dagoen mailegu puntura itzuli behar du, eta 900.840.345 doaneko telefonoaren bidez zerbitzuari jakinarazi behar dio. Erabiltzaileak ezingo balu bizikleta eraman gertuen dagoen mailegu puntura, bizikleta zaindu behar du hogeita hamar minutuko tartean, GETXOBIZIri gorabeheraren berri telefonoz eman zaion unetik aurrera kontaktzen hasita.
- 11- *Aparka* aparkaleku seguruak matxuraren bat izanez gero, erabiltzaileak zerbitzuari jakinarazi behar dio 900.840.345 doaneko telefonora deituz.

- 12- GETXOBIZI txartela ematea zerbitzuaren mantenuko ekipoak edo agintariek erabiltzaileari horrela eskatzen dioten bakoitzean.
- 13- GETXOBIZIko bizikleta publikoa ematea mantentze ekipoari edo agintariei horrela eskatzen diotenean.
- 14- Abonurarekin zerikusia izan dezaketen datuen aldaketak jakinaraztea, edo baita zerbitzuan izena ematean eskatutako datu pertsonalena ere.
15. Indarrean dauden zirkulazio arauak errespetatzea.
16. Bizikleten bidea / bidegorria erabiltzea lehentasunez, horrelakorik dagoenean.
- 17- Bizikleta publikoa era egokian eta erabiltzailearen garraio pertsonalerako bakarrik erabiltzea.
- 18- GETXOBIZIko bizikleta publikoa metroan edo autobusean garraiatzea garraio publikoaren udal ordenantzaren baitan dago. Edozein kasutan, bizikletaren mugimendua metroan zein autobusean beti mugatuko da Getxo udalerriko mugetara.
19. Ez aldatzea edo trukatzea bizikleta pribatuan ezarritako TAGa.
- 20- GETXOBIZIko erabiltzaile guztiek zerbitzua erabiltzen duten bitartean konpromisoa hartzen dute *Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legea* eta *Hiriko trafikoaren antolamendua, eta bide publikoen erabilera eta bide segurtasuna arautzen duen udal ordenantza* betetzeko.
<http://www.dgt.es/es/seguridad-vial/normativa-y-legislacion/ley-traffic/normas-basicas/>
<http://www.getxo.eus/DocsPublic/udala/castellano/ordenanzas/nofiscales/traffic.pdf>

11. DEBEKUAK.

- 1) Bizikleta erabiltzea zirkulatzeko egokiak ez diren lurretan.
- 2) Bizikleta publikoa, mailegu puntuak, *aparka* edo osatzen dituzten elementuak desmuntatzea edo manipulatzeko zati batean edo osorik.
- 3) GETXOBIZIren logotipoa baimenik gabe erabiltzea.
- 4) Esloganak, eranskailuak edo antzekoak jartzea edo idaztea bizikletan, edo mailegu/*aparka* puntuetan. Era guztietako pintaketak, mantxak, idatziak edo antzekoak egitea edozein materialekin edo azalerak arraspatzea bizikletetan edo mailegu/*aparka* puntuetan.
- 5) Mugikorra erabiltzea bizikleta gidatzen den bitartean.
- 6) Bizikleta publikoarekin gurpil bakarraren gainean ibiltzea, martxan diren beste ibilgailu batzuei heltzea eta soinu erreproduzitaileetan konektaturiko aurikularrak erabiltzea.
- 7) Beste pertsona batzuk, animaliak edo bolumen handiko objektuak garraiatzea bizikleta publikoan.
- 8) Bizikleta publikoa abandonatzea edo uztea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- 9) Bizikleta publikoa lotzea zerrapo pribatu batekin.

10) Bizikleta pribatua *aparkan* ez lotzea, baldintza hauetan bizikleta pribatua zuzen aparkatzeko moduan ezarrita dagoen bezala.

11) Bizikleta pribatuan ezarritako TAGa zati batean edo osorik manipulatzeko.

12. Datuen trataera.

- GETXOBIZI zerbitzuan izena ematen duen erabiltzaileak Getxoko Udalari eta zerbitzuaren kudeatzaile den Emaus Bilbao SCISi espresuki lagatzen dizkio bere datuak zerbitzuaren barruan erabili ahal izateko.

- Kasu guztietan, GETXOBIZI erabiltzaileek lagatutako datuak erabiliko dituzte datuen babesaren gaian indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera.

13. ARAU HAUSTEAK ETA HARTU BEHARREKO NEURRIAK

a) ARAU HAUSTEAK.

ARAU HAUSTE ARINAK

- Bizikleta publikoari edo *aparkari* 60 € arteko kalteak eragitea.
- Bizikleta itzultzeko/aparkatzeko denbora tartea luzatzea ordubete baino gehiago, baina 2 ordu baino gutxiago.
- GETXOBIZIri ez jakinaraztea txartela galdu, lapurtu edo hondatu dela.
- GETXOBIZIri ez jakinaraztea datu pertsonalen edo bankuko kontu zenbakiaren aldaketa.
- Erabiltzaileak behin edo gehiagotan *aparkaren* atea ondo ez ixtea.

ARAU HAUSTE LARRIAK

- Bizikleta publikoari edo *aparkari* 60 € eta 200 € tarteko kalteak eragitea.
- Bizikleta itzultzeko/aparkatzeko denbora tartea luzatzea 2 eta 8 ordu tartean.
- Ausarkeriaz gidatzea.
- Bi arau hauste arin egitea 6 hilabeteko epean.

ARAU HAUSTE OSO LARRIAK

- Bizikleta publikoari edo *aparkari* 200 €-tik gorako kalteak eragitea.
- Bizikleta itzultzeko/aparkatzeko denbora tartea 8 ordu baino gehiago luzatzea.
- Hirugarren bati txartela lagatzea.
- Bizikleta publikoa abandonatzea edo mailegu puntua ez den beste edozein tokitan lotzea.
- Bizikleta publikoa leku desegokietan erabiltzea.
- GETXOBIZI logotipoa modu desegokian erabiltzea.
- Bizikleta publiko edo *aparkako* edozein elementu zati batez edo osorik desmuntatzea.
- Getxo udalerriko mugaz kanpo zirkulatzea bizikleta publikoarekin.
- Hirugarren batzuei kalteak eragitea.
- Bizikleta publiko sistemara ez itzultzea.
- Bizikleta publiko irabaziak lortzeko edo merkataritza xedeetarako erabiltzea.
- Mantentze ekipoei txartela emateari uko egitea.
- Kuota edo dagozkion zigorrak ez ordaintzea.
- GETXOBIZIri datu faltsuak ematea izen ematean.
- Dokumentu honen 11. atalean debeku gisa sailkatuta dauden portaeretakoa bat izatea.
- Bizikletako TAGa manipulatzeko era desegokian.
- Udal Ordenantzan edo Trafikoaren Zuzendaritzaren Lege orokorrean aurreikusitakoa ez betetzea.
- Bi arau hauste larri egitea urtebeteko epean.

b) ZIGORRAK, arau hauste kasuan hartu beharreko neurriak.

Arau hauste arinen ZIGORRAK

- a) Badaezpadako neurri gisa erabiltzailearen txartela blokeatuko da hilabeteko epealdirako gehienez ere. Horrek ekarriko du erabiltzaile izaeraren suspentsioa, eta sistema erabiltzeko debekua, eta hala badagokio sortutako kalteen zenbatekoa ordaintzea.
- b) Ezarritako zenbatekoak ordaintzea arau hausteak horrela eskatzen badu.

Arau hauste larrien ZIGORRAK:

- a) Badaezpadako neurri gisa erabiltzailearen txartela blokeatuko da sei hilabeteko epealdirako gehienez ere. Horrek ekarriko du erabiltzaile izaeraren suspentsioa, eta sistema erabiltzeko debekua, eta hala badagokio sortutako kalteen zenbatekoa ordaintzea.
- b) Ezarritako zenbatekoak ordaintzea arau hausteak horrela eskatzen badu.

Arau hauste oso larrien ZIGORRAK:

- a) Badaezpadako neurri gisa erabiltzailearen txartela blokeatuko da bederatzi hilabeteko epealdirako gehienez ere. Horrek ekarriko du erabiltzaile egoeraren suspentsioa, eta sistema erabiltzeko debekua, eta hala badagokio sortutako kalteen zenbatekoa ordaintzea.
- b) Zerbitzutik kanpo behin betiko uztea.
- c) Ezarritako zenbatekoak ordaintzea arau hausteak horrela eskatzen badu.

*Adierazitako kasuetan erabiltzaile izaera bertan behera uzteak ez dakar kontratuaren iraupen epea etetea.

Kasu guztietan, GETXOBIZIK aukera izango du, aipatutako neurriak hartzeaz gain, erabiltzailearekin zerikusia duten kalteen ordaina jasotzeko, eta baita bidezkotzat jotzen dituen erreklamazio-egintza juridikoak planteatzeko ere.

14. EZ BETETZEAREN PROZESUA.

Zerbitzuaren kudeatzaileak erabiltzailearen batek betebeharrak betetzen ez dituela antzemanaz gero, ez betetze prozesu bati hasiera emango zaio.

Erabiltzaileari jakinaraziko zaio prozesua izapidetu dela, eta 10 laneguneko epea emango zaio egokiak iruditzen zaizkion alegazioak egin ditzan.

Kontuan izanik aurkeztutako alegazioak, zerbitzuko kudeatzaileak erabakia hartuko du, eta dagozkion neurriak hartuko ditu.

Erabaki hori erabiltzaileari jakinarazi egingo zaio.